

Udalaren informazio aldizkaria
Boletín de información municipal

Berriozar

2026 OTSAILA-FEBRERO / N° 5. ALEA



5 Berriozarko Udalak
10 milioiko aurrekontua
onetsi du 2026rako

Berriozar aprueba un
presupuesto de 10
millones para 2026

JARRAI GAITZAZU SAREETAN / SÍGUENOS EN REDES

 @berriozar31013

 @berriozar31013

 Ayuntamiento de Berriozar-Berriozarko Udala



**Eskola publikoak,
50 urte**

**50 años de
escuela pública**



INFORMAZIO INTERESGARRIA INFORMACIÓN DE INTERÉS

Udala / Ayuntamiento

948 30 00 05

>>> berriozar@berriozar.es

Udaltzaingoa / Policía Municipal

639 400 906 / 948 30 07 08

>>> policia@berriozar.es

Zerbitzuak / Servicios

Euskara / Euskera

948 30 03 59

>>> euskara@berriozar.es

Kultura / Cultura

948 30 16 56

>>> cultura@berriozar.es

Kirolak / Deportes

948 30 16 36

>>> deportes@berriozar.es

Berdintasuna / Igualdad

948 30 16 31

>>> igualdad@berriozar.es

Programa LTGBI

>>> lgtbi@berriozar.es

Diversidad Cultural / Kultur Aniztasuna

948 30 00 05 - Ext. 154

>>> diversidadcultural@berriozar.es

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea / Mancomunidad Servicios Sociales

948 30 00 07

>>> serviciosocial@manserso.org

Ludoteka / Ludoteca

607 22 89 08

>>> ludotekaberriozar@gmail.com

Gaztegune

673 15 95 11

>>> gaztegune@berriozar.es

Bake Epaitegia / Juzgado de Paz

948 30 08 79

Liburutegia / Biblioteca

948 30 17 65

>>> biblibrr@cfnavarra.es

Iruñalde Eguneke Zentroa / Centro de Día Iruñalde

692 075 708

>>> centrodediaberriozar@berrikilan.es

Kiroldegia / Polideportivo

948 30 17 19

>>> poliberriozar@berrikilan.es

info@berrikilan.es

Bestelakoak / Otros

Musika Eskola / Escuela de Música

948 30 04 30

>>> musica@berriozar.es

Haur Eskola / Escuela Infantil

848 46 38 44 / 673 292 922

>>> eimurtxintxa@berriozar.es

Mendialdea I Eskola / Escuela Mendialdea I

948 63 35 34

>>> cpberrio1@educacion.navarra.es

Mendialdea II Eskola / Escuela Mendialdea II

948 63 35 36 / 722 899 173

>>> mendialdea.ip2@educacion.navarra.es

Auzalor AEK Euskaltegia

948 30 06 02

>>> berriozar@aek.eus

Institutua / Instituto

948 30 94 05

>>> iesoberr@educacion.navarra.es

San Esteban Erretiratuen Elkartea / Club de Jubilados/as San Esteban

948 30 13 08

>>> jubiladosesteban@hotmail.com

Osasun Etxea / Centro de Salud

948 30 94 04



Berriozar

Udalaren informazio aldizkaria / Boletín de información municipal

2026 OTSAILA-FEBRERO / N° 5. ALEA

Argitaratzailea: Berriozarko Udala.

Erredakzio Kontseilua: Iker Mariezkurrena,
Félix Puyo, Arantxa Ríos, Francisco Javier
Castro, Francisco Javier Torrecillas eta
Daniel Cuesta.

Egilea: Heda Comunicación S.L.

Argazkiak: Jon Urriza, Iñaki Porto,
Erregeen Kabalgata Elkartea.

Ale kopurua: 4.500 ale.

Doako banaketa.

Edita: Ayuntamiento de Berriozar.


Consejo de Redacción: Iker Mariezkurrena,
Félix Puyo, Arantxa Ríos, Francisco Javier
Castro, Francisco Javier Torrecillas y
Daniel Cuesta.

Realiza: Heda Comunicación S.L.

Fotografías: Jon Urriza, Iñaki Porto,
Asociación Cabalgata de Reyes.

Tirada: 4.500 ejemplares.

Difusión gratuita.



Ezagutu Berriozar Conoce Berriozar

Asier Costa Chavero

● Berriozarko herri inauteriak 40 urte bete ditu otsail honetan. Ospakizuna 1986an sortu zen, Fermintxo Sanchez Agurruza eta Pernando Barrena Arza AEKko irakasleen ekimenez, eta Barrenak kantuaeren letra ere egin zuen. Bertako erreferentziarik ez zegoenez, konpartsa bat sortzeko beharra ikusi zen eta, horretarako, Felix Sarasa "Txolin" en figura hartu zuten ardatz. Haren irudia Andoni Ropero ilustratzaileak zabaldu du gaur egun arte bere pegatina fosforito ezagunen bidez. Inautea, gainera, hainbaten lanari esker errotu da. Andoni Jimenezek, adibidez, dantzaren musika konposatu eta Txori Zuri dantza taldeko Ana Ortigosak Txolinen dantza itxuratu zuen, Ascen Zabalzak eta Benjamin Ipiñak lagundurik. Gaur egun, gainera, beste batzuek ere osatzen dute segizioa, hala nola txatxoek, Reille kondearen armadak eta sorgin batzuek, den-dena joaldunen zintzarriek eta gaiten eta fanfarrearen doinuek giroturik.



● Este mes de febrero, el carnaval rural de Berriozar celebra su 40 aniversario, una tradición nacida en 1986 por iniciativa de los profesores de la AEK Fermintxo Sánchez Agurruza y Pernando Barrena Arza, autor este último también de la letra de la canción. Ante la falta de referentes propios, se vio la necesidad de diseñar una comparsa basada en torno a la figura de Félix Sarasa, "Txolin", cuya imagen ha sido difundida hasta hoy por el ilustrador Andoni Ropero mediante sus conocidas pegatinas fosforitas. La consolidación de esta efeméride se debe, además, a la labor de Andoni Jiménez, quien ideó la música de la danza, y de Ana Ortigosa, del grupo de danzas Txori Zuri, quien contó con la ayuda de Ascen Zabalza y Benjamín Ipiña para dar forma a la danza propia de Txolin. El conjunto lo componen hoy en día, además, un séquito de txatxos, el ejército del conde Reille y alguna sorgina, escoltados por los cencerros del Zantantzar y la música de gaitas y fanfarre.

Berriozarko argazki zaharrak UIAn argitaratu nahi badituzu, bidali info@heda.es helbide elektronikora, izena adierazita eta, ahal bada, argazkiari buruzko datu batzuk ere bai (noiz eta non eginga, jarduera, etab.).

Las personas interesadas en publicar en el BIM fotografías antiguas de Berriozar pueden enviarlas al correo electrónico info@heda.es, indicando su nombre y, si es posible, algunos datos sobre la fotografía (fecha, lugar, actividad, etc.).

Udaltzaingoaren aholkuak etxebizitza eta dendetan lapurretarik ez izateko

● Berriozarko Udaltzaingoak hainbat aholku eman ditu gure herriko etxebizitza eta saltokietan lapurreta eragozteko.

Saltokiei dagokienez, Udaltzaingoak lokalen segurtasuna sendotzea aholkatu du eta, horretarako, onena da barnealdean eta kanpoaldean argiztapen ona izatea, ez paratzea barnealdea kaletik ikustea eragozten duen objekturik edo kartelik, diru-kutxa mostradoretik kanpo izatea eta haren barruan diru asko ez gordetzea, lapurreten aurkako sistema bat edo filmazio etengabeko sistema bat ezartzea, eta arasak eta erakusmahaiak giltzez ixtea. Era berean, azaldu du zer egin behar den lapurretarik edo atrakorik gertatzen bada: udaltzaingoari berehala deitzea (639 400 906), ez ukitzea deus ere udaltzainak iritsi arte, ez jartzea arriskuan gure osotasun fisikoa, ezta beste pertsona batzuen ere, eta atrakatzaileren ezaugarri fisikoez eta itxuraz ohartzea, salaketa jartzean horiek ere jasotzeko. Etxebizitzei dagokienez, gomendagarria da etxetik ateratzen garenean atea giltzez ixtea, denbora laburrerako ateratzen bagara ere; leihoak itxita daudela ikustea; atea jende ezezagunari ez irekitzea, ezta zerbitzu bateko langileak direla frogatzen ez dutenei ere; udaltzaingoari deitzea, baldin eta eraikinen barnealdean komunitatekoa ez den jendea ikusten badugu; eta etxean gordeak daukagun gauza baliotsuen argazki bat izatea, identifikatu ahal izan ditzagun, gauza horiek berreskuratzen badira.

Consejos de Policía Municipal para evitar robos en viviendas y comercios

● La Policía Municipal de Berriozar quiere difundir una serie de consejos para prevenir los robos en los domicilios y establecimientos comerciales del municipio.

En el caso de los comercios, aconseja reforzar la seguridad de los locales con acciones como son mantener una buena iluminación en el interior y el exterior, no instalar objetos o carteles que dificulten la visibilidad del interior desde la calle, tener la caja registradora separada del mostrador y sin excesivo dinero en su interior, instalar un sistema antirrobo o un sistema de filmación continua o mantener las vitrinas y expositores cerrados con llave.

También explica los pasos a seguir si se sufre un robo o atraco: avisar inmediatamente a Policía Municipal (639 400 906), evitar tocar nada hasta la llegada de los/as agentes, no poner en riesgo su integridad física o la de otras personas y fijarse en las características físicas y el aspecto de los atracadores para que figuren al interponer la denuncia.

En cuanto a las viviendas, se recomienda cerrar la puerta con llave al salir de casa aunque sea para poco rato, comprobar antes de salir que las ventanas están cerradas, no abrir la puerta a personas desconocidas o que no se acrediten como operarios de algún servicio, avisar a Policía Municipal si se detecta a personas ajenas a la comunidad en el interior de edificios y tener una fotografía de los objetos de valor que se guardan en el domicilio para poder identificarlos posteriormente en el caso de que se recuperen.

Dirulaguntza-deialdi berria gazteen emantzipazioa errazteko

● Berriozarko Udalak gazteen emantzipazioa errazteko dirulaguntza-deialdia eman du argitaratu, 2026koa, alegia.

Gazteei etxea alokatzen laguntzeko dirulaguntzaren bidez erraztasuna eman nahi zaie herrian erroldatutako gazteei (18-33 urtekoak) etxebizitza gure udalerrian bertan alokatzeko, Berriozarren bizitzen jarrai dezaten eta, horrela, gure herriaren hazkundera eta garapenera parte har dezaten.

Berriozarko Udalaren laguntzak bateragarriak dira Nafarroako Gobernuak ematen dituenekin eta, eskabideak udaletxean bertan aurkeztu daitezke, edo bestela, udal webguneko erregistro elektronikoaren bidez (www.berriozar.es).

Nueva convocatoria de subvenciones para facilitar la emancipación juvenil

● El Ayuntamiento de Berriozar ha hecho pública la convocatoria de subvenciones para facilitar la emancipación juvenil correspondiente a 2026.

La convocatoria de subvención de apoyo al alquiler joven en Berriozar tiene por objeto que las personas jóvenes (18-33 años) empadronadas en la localidad encuentren facilidades de acceso a la vivienda en régimen de alquiler en el municipio, con el fin de que continúen habitando en él y colaborando en su crecimiento y desarrollo.

Estas ayudas son compatibles con las que concede Gobierno de Navarra, y las solicitudes pueden presentarse presencialmente en el Ayuntamiento o a través del registro electrónico de su página web (www.berriozar.es).



Producto ecológico de cercanía
Bertako ekoizle ekologikoen aukera zabala



De lunes a viernes
Astelehenetik ostiralera
09:00 - 19:30

Sábados
Larunbatetan
09:00 - 13:30

📍 Kaleberri 2. Berriozar

☎ 948 773 325

📞 688 876 008

📷 [hazibioekia](#)

Belardi natural berria eginen da Plazaolako bidearen ondoan

Berdegune berria itxuratzen ari da Plazaolako bidearen ondoan, Berriozarren bertan: 27.000 metro karratuko belardia, ingurua bizitzaz, lorez eta naturaz betetzeko.

Berrikitan lanak egin dira Foruen pasealekuan eta Iturkoa kalean itzalguneak sortzeko eta euri-ura jasotzeko eta, orain, beste proiektu honen bidez, belardi loretsua sortuko da bioaniztasun oparorik gabeko soropil eremuetan. Horren ondorioz, ingurune naturalagoa eta berdeagoa izanen dugu herrian, hiri-guneak hobetuta. Hori guztia onuragarria izanen da bizilagunen ongizaterako, bizi-kalitaterako eta osasunerako.

Joan den azaroan, 1.100 tona lur ekarri ziren, hogeita hamar basa lore espezie baino gehiago landatzeko. Lore guztiak 7-8 zentimetroko lodierako lur konpostatuaren gainean haziko dira. Horrela, landare aniztasuna areagotu nahi dute eta ingurune naturalagoa sortu, intsektu polinizatzaileen babeslekua izateko eta, jakina, horrelako intsektuak dabiltzan lekuan, hegazti intsektujaleak eta ugaztun txikiak ere badabiltza.



Berriozar contará con una nueva pradera natural junto a la vía del Plazaola

Un nuevo espacio verde está tomando forma junto a la vía del Plazaola a su paso por Berriozar: una pradera natural de 27.000 metros cuadrados que convertirá la zona en un entorno florido, diverso y lleno de vida.

Tras las actuaciones llevadas a cabo recientemente en el Paseo de los Fueros y la calle Iturkoa para crear zonas con sombra y captar el agua de la lluvia, este nuevo proyecto plantea la creación de una pradera florida para zonas de césped con escasa biodiversidad. Esto contribuirá a que el municipio disponga de un entorno más natural y verde, mejorando los espacios urbanos y generando beneficios directos para el bienestar, la calidad de vida y la salud de la población.

El pasado mes de noviembre se realizó el aporte de 1.100 toneladas de tierra, paso previo a la siembra de más de treinta especies de flores silvestres, que crecerán sobre una capa de tierra compostada de entre 7 y 8 centímetros de espesor. La actuación busca aumentar la

diversidad de plantas y crear un entorno más natural que sirva de refugio a insectos polinizadores, los cuales, a su vez, favorecen la presencia de aves insectívoras y pequeños mamíferos.

Gai birziklatuz egindako jarleku berriak, plaza eta parkeetan

● Berriozarko Udalak, laster, jarleku berriak paratuko ditu Turrillas plazan, Zortziko plazan eta Ilargi parkean. Parkeko jarlekuak plastiko birziklatua erabiliz egin dira; bi plazetakoak, berriz, zur teknikoaren izeneko materialarekin; ez du mantentze-lanik behar eta jarlekuak ez dira ez lixatu, ez margotu, ez bernizatu behar. Hemendik aurrera, Udalak material horiekin egiten diren jarlekuak paratu nahi ditu esparru publikoetan, jasangarriagoak eta iraunkorragoak baitira.

LED argiztapena udal eraikinetan

Udalak, bestalde, egungo argien ordeztu LED argiak jartzeari helduko dio datozen asteotan hainbat tokitan, eraginkorragoak eta iraunkorragoak baitira. Zehazki, Francisco Casanova Musika Eskolan, Mendialdea ikastetxeko pilotalekuan, Auzalor euskaltegian, udaletxeko lehen solairuan, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen egoitzan, Obra Zerbitzuaren nabean eta etxeban, bai eta Haur Eskolan ere.



Nuevos bancos de material reciclado en plazas y parques

● El Ayuntamiento de Berriozar va a acometer en breve la colocación de nuevos bancos en la plaza Turrillas, la plaza Zortziko y el parque Ilargi. Los bancos del parque están contruidos con plástico reciclado, mientras que los de las dos plazas son de un material denominado madera técnica, que no necesita mantenimiento y evita trabajos como lijar, pintar o barnizar.

La idea del Consistorio es que, a partir de ahora, los bancos que se vayan colocando en los espacios públicos sean de estos materiales más sostenibles y duraderos.

Iluminación LED en edificios municipales

Por otra parte, el Ayuntamiento acometerá en las próximas semanas la sustitución de la iluminación actual por luces LED -más eficientes y duraderas- en la Escuela de Música Francisco Casanova, el frontón del Colegio Mendialdea, el euskaltegi Auzalor, la primera planta de la Casa Consistorial, la sede de la Mancomunidad de Servicios Sociales, la nave y la bajera del Servicio de Obras y la Escuela Infantil.

Berriozarko Udalak 10 milioiko aurrekontua onetsi du 2026rako

Berriozarko Udaleko osoko bilkurak 2026rako aurrekontua onetsi du. 9.995.310,06 euro dira eta, dirutza horri, Ekintza eta Inbertsio Estrategikoetarako Planaren 2,4 milioi euroak erantsi behar zaizkio. Udal gastua, beraz, 12.395.310,06 euro izanen da, guztira. Aurrekontuaren izaera soziala nabarmendu behar da, eta asmo handikoa dela inbertsioari begira, behar diren baliabideak baliatuko baitira zerbitzu publikoak hobetzeko, gizarte kohesioa sustatzeko eta udal azpiegiturak berritzeko.

Diru gehiago zaintzetan eta komunitatean
Diru gehiago bideratuko da gure herriko bizitza

komunitariorako funtsezkoak diren partidetar. Gazteria eta Haur arloak, esaterako, % 50 gehiago jasoko du esku-hartze eta aisia arloko programak areagotzeko. Era berean, % 55 igo da San Esteban Erretiratuen Elkartetarako dirutza, adinekoen bizitza aktiboari bultzada emateko eta jantoki komunitario ireki berriaren jarduna finkatzeko.

Berdintasunari dagokionez, % 10 igo da politika feministetara eta LGTBQ+-ra bideratuko den dirua. Euskara sustapenerako igoera, berriz, % 25ekoa izan da, jarduerak egiteko eta laguntzak emateko. Kulturak eta hezkuntzak ere pisu nabarmena izanen dute, 2026an: 80.000 euro

baliatuko baitira Haur Eskolan hobekuntza lanak egiteko eta, 60.000 euro, liburutegiko aireztapen sistema eta irisgarritasuna berritzeko.

Kirol arloan, Udalak 60.000 euro bideratuko ditu udal instalazioetan obrak egitera eta erabilera anitzeko gune berriak sortzera, kirola egiteko eta aisiarako. Gainera, dinamismo komunitarioa sustatuko da, taldeei dirulaguntzak emanez eta herriko jaietarako partidak % 7 igoz. Etxebizitza arloan, iaz bezala, aurtan ere, 115.000 euro erabiliko dira birgaitze energetikorako, eta 15.000 euro, gazte alokairura bideratzeko.

2,4 milioi inbertsio estrategikoetarako

Aurrekontuaz gain, Udalak Ekintza eta Inbertsio Estrategikoetarako Plana onetsi du, 2,4 euroz hornitua, funtsezko lanen bidez udalerria eraldatzeko hiri, kirol eta ingurumen arloetan.

Berriozar aprueba un presupuesto de 10 millones para 2026

El Pleno del Ayuntamiento de Berriozar ha aprobado el presupuesto para 2026, que asciende a 9.995.310,06 euros, al que se suma un Plan de Acciones e Inversiones Estratégicas de 2,4 millones de euros, lo que eleva el gasto municipal total a 12.395.310,06 euros. Se trata de un presupuesto con un marcado carácter social y una ambiciosa estrategia de inversión, destinando recursos esenciales para la mejora de los servicios públicos, la cohesión social y la modernización de las infraestructuras municipales.

Refuerzo en cuidados y comunidad

Las cuentas introducen incrementos de partidas en áreas clave para la vida comunitaria del municipio como son el área de Juventud e

Infancia, que experimenta un aumento del 50% para ampliar programas de intervención y ocio. Del mismo modo, el convenio con el Club de Jubilados/as San Esteban crece un 55%, garantizando el impulso a la vida activa de las personas mayores y consolidando el funcionamiento del recién estrenado Comedor Comunitario.

En materia de Igualdad, la partida para políticas feministas y LGTBQ+ aumenta cerca de un 10%, mientras que el fomento del euskera refuerza su presencia con un incremento del 25% destinado a actividades y ayudas. La cultura y la educación también tendrán un peso relevante en 2026: se incluyen 80.000 euros para mejoras en la Escuela Infantil y 60.000 para reformar el sistema de

ventilación y la accesibilidad de la Biblioteca.

En el ámbito deportivo, el Consistorio destinará 60.000 euros para actuaciones en instalaciones municipales y para la creación de nuevos espacios polivalentes deportivos y recreativos. Además, se promueve el dinamismo comunitario con el refuerzo de subvenciones a colectivos y un incremento del 7% en las partidas de fiestas locales. En materia de vivienda, se mantienen 115.000 euros en ayudas para la rehabilitación energética y se reservan 15.000 euros a ayudas al alquiler joven.

2,4 millones para inversiones estratégicas

De forma complementaria al Presupuesto Único, el Ayuntamiento ha aprobado un Plan de Acciones e Inversiones Estratégicas dotado con 2,4 millones de euros, que permitirá llevar a cabo actuaciones clave para la transformación urbana, deportiva y medioambiental del municipio.

Onetsi da behe solairuak etxebizitza bihurtzeko araua

● Nafarroako Aldizkari Ofizialean hiri jarduketarako plan bereziaren behin betiko onespena argitaratu zen, joan den abenduaren 23an, arau subsidiarioak aldatzeko, beheko solairuetan baimendua egon dadin etxebizitzarako erabilera. Udalaren iritziz, izan ere, ona da luzaroan erabilerarik izan ez duten lokalak etxebizitza bihurtzea, abandonatuak gelditu diren espazioak berroneratzeko aukera baitira, baina aldi berean, aukera horren arauketa arduratsua jo du beharrezkotzat, infraetxebizitzak sortzeko arriskurik ez izateko.

Agiriaren helburua da lurzorua baldintzak ezartzea eta erabilera horren baldintza orokorrak zehaztea.

Aprobada la norma que permite la conversión de plantas bajas en viviendas

● El Boletín Oficial de Navarra publicó el pasado 23 de diciembre la aprobación definitiva del Plan Especial de Actuación Urbana para la modificación de normas subsidiarias que permita como uso tolerado en plantas bajas el de vivienda. El Ayuntamiento considera positiva la conversión de locales que llevan mucho tiempo deshabitados en viviendas por ser oportunidad de regeneración urbana de espacios que han quedado abandonados, pero ha creído necesaria una regulación responsable de esta oportunidad para evitar los riesgos de generación de infraviviendas. El documento tiene como objetivo establecer las condiciones del suelo y la definición de las condiciones generales de este uso.

Berriozarko herritarren erantzun ona edukiontzi txarteldun berriei

Iruñerriko Mankomunitateak bere poza agertu du Berriozarko herritarrek herrian paratu diren edukiontzi berriei emandako erantzunarekin.

Izan ere, txartel bidezko edukiontzien sistema duela zazpi hilabete abian jarri zenetik hona, ikusgarria izan da zenbat igo den Berriozarren gai organikoaren berreskurapena. Mankomunitateak berak nabarmendu duenez, lehenago, 17.600 kilo gai organiko biltzen ziren edukiontzi itxietan hileko eta, orain, berriz,

52.585 kilo hileko, ia hiru aldiz gehiago, hain zuzen ere.

Horrez gain, aipatu behar da nabarmen jaitsi dela gainerakoa edo errefusa esaten zaion hondakinaren bilketa; horrek esan nahi du era horretako hondakin gutxiago eramaten direla zabortegira. Horrela, 2024ko azaroaz geroztik, errefusa 172.900 kilotik 102.715era jaitsi da (% 40ko murrizketa).

Horrek, halaber, esan nahi du herritarrek hobeki bereizten dituztela hondakinak eta hobeki ere

uzten dituztela edukiontzietan; horren ondorioz, zaborraren tratamendua eraginkorragoa da eta askoz ere gutxiago kutsatzen du.

Edukiontzi itxien sistema ezartzearen helburu nagusia da hondakinak hobeki bereiztea; batez ere, edukiontzi marroiko gai organikoa, hondakin horrek eragin baitezake ingurumen eraginik handiena, behar bezala tratatzen ez bada.

Botata uzten diren poltsak, erronka

Bestalde, botata uzten diren poltsei dagokienez, Berriozarren % 20 gutxiago uzten dira edukiontzi itxiak dituzten gainerako herrietan baino. Datu horiek hobetze aldera, Mankomunitateak talka plana jarri du abian bere jarduketara eremu osoan, gauza hori neurrigabe gertatzen den tokietan eragiteko, toki horietako batzuk gure herrian baitaude.

Buena respuesta de la ciudadanía de Berriozar a los nuevos contenedores de tarjeta

La Mancomunidad de la Comarca de Pamplona ha hecho pública su satisfacción con la respuesta de la ciudadanía de Berriozar a la implantación de los nuevos contenedores en el municipio.

Pasados siete meses desde que se puso en marcha este sistema de contenedores con tarjeta, el incremento de la recuperación de materia orgánica en Berriozar ha sido espectacular. Según destaca la Mancomunidad, se ha pasado de una recogida de 17.600 kilos de materia orgánica al mes en

los contenedores cerrados a una media de 52.585 kilos al mes en la actualidad, casi el triple.

Estos datos vienen acompañados de una reducción también relevante de la recogida de la fracción resto, lo que redundará en un menor depósito en vertedero. Desde noviembre de 2024, se ha reducido el resto de 172.900 a 102.715 kilos (una reducción del 40%).

Esto significa que la ciudadanía separa y deposita mejor y, por tanto, el tratamiento de la basura es más eficiente y mucho menos

contaminante.

La implantación del sistema de contenedores cerrados tiene como principal objetivo la mejora en la separación de los residuos, y especialmente de la materia orgánica del contenedor marrón, por ser el residuo que puede provocar el mayor impacto ambiental si no se trata adecuadamente.

El bolseo, un reto a abordar

También el bolseo en Berriozar es alrededor de un 20% menor que en el resto de localidades con contenedores cerrados. Para mejorar estos datos, la Mancomunidad ha puesto en marcha un plan de choque en todo su ámbito de actuación para incidir en los puntos de contenedores donde el bolseo es más preocupante, algunos de ellos localizados en nuestro municipio.

Bizikletak konpontzeko gune bat paratu da Euskal Herria plazan

● Berriozarko Udalak bizikletak konpontzeko beste gune publiko bat jarri du; oraingo honetan, Euskal Herria plazako bizikleta aparkalekuaren ondoan, nork bere bizikleta konpon dezan, bai eta bizikletari mantentze-lanak egiteko ere. Horretarako, oinarritzko tresnak daude edonoren eskura, guztiak ere funtsezkoak horrelako lanak egiteko, hala nola bihurkinak, hainbat giltza mota, bai eta gurpilak desmuntatzeko tresnak ere. Horrez gain, gurpilak puzteko gailua dago, hainbat balbula motarekin erabiltzeko modukoa. Lana errazte aldera, gunean badago bizikletari eusteko euskarri bat, konponketak aiseago egiteko.

Zerbitzua doakoa da eta supermerkatuko gurditxoan antzeko fidantza sistema baten bidez funtzionatzen du.

Instalada una estación para reparar bicicletas en la Plaza Euskal Herria

● El Ayuntamiento de Berriozar ha puesto en funcionamiento una nueva estación pública de autorreparación de bicicletas junto al actual aparcabici de la Plaza Euskal Herria. La estación ofrece a la ciudadanía la posibilidad de realizar diversas reparaciones y tareas de mantenimiento por su cuenta. Para ello, cuenta con un conjunto de herramientas básicas esenciales que incluye destornilladores, diferentes tipos de llaves, así como desmontables para las ruedas. Además, está equipada con una bomba de inflado compatible con diferentes tipos de válvulas. Para facilitar el trabajo, la estación dispone de un soporte que permite colgar la bicicleta mientras se realizan los arreglos. El servicio es gratuito y funciona mediante un sistema de fianza similar al de los carritos de supermercado.

Berriozarko haurrak gutunak ematera joan ziren Olentzero eta Mari Domingirengana

Eguberriak girotzen hasteko, Berriozarko gazteriak kalejira bat antolatu zuen, joan den abenduaren 13an, Herri Zaharrerantz joateko, Olentzero eta Mari Domingi esnatzeko asmoz.

Aurreko egunetan, bestalde, euskarazko produktuen katalogoa eta gutunak banatu

ziren Gaztegunean, haurrek beren opari zerrendak presta zitzen. Kalejiraren egunean bertan, gure herriko haurrek Olentzero eta Mari Domingi agurtu, eta gutunak eman zizkieten. Haiekin ere argazkiak egin eta gabon kantak abestu zituzten.

Las y los txikis de Berriozar entregan sus cartas a Olentzero y Mari Domingi

Como antesala de las fiestas navideñas, la juventud de Berriozar organizó el pasado 13 de diciembre una kalejira hacia el Pueblo Viejo para despertar a Olentzero y Mari Domingi.

Durante los días previos, en el Gaztegune, se repartieron catálogos de productos en

euskera y cartas para que las y los txikis pudieran preparar sus listas de regalos. El mismo día de la kalejira, las niñas y niños de Berriozar tuvieron la oportunidad de saludar a Olentzero y Mari Domingi, entregar sus cartas, hacerse fotos y cantar villancicos.





TURBO AUTOESCUELAS
TU AUTOESCUELA EN BERRIOZAR

Ven a nuestras oficinas e infórmate de nuestros servicios y tarifas

C/ Iruñalde, 1 • 31013 • Berriozar
948 948 30 06 20 | 636 585 086
turboberriozar@turboautoescuelas.com

www.turboautoescuelas.com

La mejor manera de saber el precio de tu casa



644 648 738

 WhatsApp



Arantza Gómez
La inmobiliaria de Berriozar





Ireki euskararen bidea zure seme-alabei

● Laster, matrikulazio kanpaina hasiko da eta zalantza sortzen da non matrikulatu seme-alabak. Euskararen bidea ahalik eta lasterren hartzeak garrantzi handia du, hizkuntza errazago ikasiko delako. Hori dela eta, Berriozarko Udalak, Iruñerriko gainerako udalekin batera, euskarazko ereduetan matrikulatzera gonbidatu ditu familiak eta, horretarako, aholkularitza eta laguntza eskaintzen ditu Urtxintxa haur eskolan, Mendialdea II ikastetxean eta Udaleko Euskara Zerbitzuaren bidez.

Abre el camino del euskera a tus hijos e hijas

● En breve va a comenzar la campaña de matriculación y suele surgir la duda de dónde matricular a los hijos e hijas. Tomar el camino del euskera cuanto antes tiene una gran importancia, ya que el aprendizaje del idioma será más fácil. El Ayuntamiento de Berriozar, junto al resto de Ayuntamientos de la Comarca de Pamplona, invita a las familias a matricular a los niños y niñas en la línea del euskera, y ofrece asesoramiento y ayuda tanto en la Escuela Infantil Urtxintxa como en el Colegio Mendialdea II o a través del Servicio Municipal de Euskera.

Euskara sustatzeko herritar ekimena


● Berriozarko eragileek proposamen aunitz antolatu dituzte euskara sustatzeko. Mendialde II ikastetxeko guraso elkarteak, adibidez, Zientzia eta Golazen tailerrak antolatu zituen Eguberrietarako, 70etik gora haur bertarata. Euskara taldeak, bestalde, Kantuz taldea eta mus txapelketa antolatu ditu, eta Muxikoak ikasteko tailerra prestatzen ari da. Bukatzeko, ohi denez, jendea ere kantuan atera zen karrikaz karrika, tabernaz taberna eta dendaz denda Agate Deunaren bezperan, koplaka, askari ederra ahogozatu baino lehen.

Korrikak Berriozar gurutzatuko du datorren martxoaren 22an

● Aurtengo ibilbidearen arabera, Korrika goizeko 5:56an sartuko da gure herrian Agustinoen industriadetik eta gure herriko karriketan zehar hiru lekuko aldaketa egingen dira.

Aldez aurreko jarduerak

Berriozarko Korrika Batzordeak hainbat jarduera prestatu ditu lasterketaren inguruan. Martxoaren 7an, adibidez, Korrika Txikia egingen da ikastetxeko ikasleendako eta, hilaren 22an bertan, igandearekin, hainbat ekitaldi. Bestalde, Berriozarko saltoki, elkarte eta eragile andanak diru ekarpena egingen dute kilometroak erosteko, euskara gure herrian denon artean sustatze aldera.



La Korrika pasará por Berriozar el próximo domingo 22 de marzo

● Siguiendo el recorrido de este año, la Korrika entrará en Berriozar a las 5:56 de la mañana desde el polígono Agustinos, y tendrá tres cambios de testigo a lo largo de su paso por nuestro municipio.

Actividades previas

La Comisión de la Korrika de Berriozar está en marcha con el objetivo de preparar varias actividades relacionadas con la celebración: el día de la Korrika el 7 de marzo, la Korrika txiki para el alumnado en los centros educativos, y otros actos que tendrán lugar el propio domingo 22. Diversos comercios, asociaciones y agentes de Berriozar realizarán aportaciones para la compra de kilómetros, con el objetivo de fomentar el euskera de forma colectiva en el pueblo.

Iniciativa ciudadana para fomentar el euskera

● Los diferentes agentes de Berriozar están organizando muchas propuestas para fomentar el euskera: la Apyma del Colegio Mendialdea II organizó en Navidad un Taller de Ciencia y el Taller Golazen, que han contado con la participación de más de 70 niños y niñas. El Grupo de Euskera ha organizado el grupo Kantuz y un campeonato de mus, y está preparando el taller de Muxikos. Para terminar, se celebraron los coros de Agate Deuna en la víspera del día de Santa Ageda, con numerosas personas cantando coplas de bar en bar y de comercio en comercio, antes de disfrutar de una merienda.



Eskultura berria Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko

● Joan den abenduaren 2an, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu zen Berriozarren. Hori dela eta, eskultura berri bat inauguratu zen. Jardueretan, herriko eragile aunitzek parte hartu zuten: Mendialdea I eta II ikastetxeek, institutuak, Erretiratuen Elkartek, Euskaltegiak, Lantxotegik, Hazitxo Klubak... Talde horietako hainbat kidek euskararen zabalkundea aldarrikatu zuten txalapartaren bidez eta, hain zuzen ere, txalaparta da eskultura berriaren ardatza. Izan ere, Iñaki Villanuevak instrumentu hori irudikatu du zurez egina. Lana Francisco Casanova Musika Eskolaren sarreran paratu da eta Josu Jimenez Berriozarko idazleak onduta da eskulturrari erantsi zaion mezua: "Ttakun eta herren, euskaraz arren".




Nueva escultura para celebrar el Día Internacional del Euskera

● El pasado 2 de diciembre se celebró en Berriozar el Día Internacional del Euskera, y la actividad principal fue la inauguración de una nueva escultura. En las actividades participaron numerosos agentes del pueblo: los colegios Mendialdea I y II, el instituto, el Club de Jubilados, Euskaltegi, Lantxotegi, el Club Hazitxo... Diversos miembros de estos grupos reivindicaron la expansión del euskera mediante la txalaparta, y es precisamente la txalaparta la que protagoniza la nueva escultura: un trabajo realizado por Iñaki Villanueva en madera que representa este instrumento, y que se ha colocado en la entrada de la Escuela de Música Francisco Casanova. Como aportación del escritor de Berriozar Josu Jimenez, se ha añadido a la escultura el mensaje "Ttakun eta herren, euskaraz arren".

Jende gehiago ari da euskara ikasten

● Berriozarko AEKko Auzalor euskaltegian jende gehiago matrikulatu da euskara ikasteko. Igoera azken urteotako joera izaten ari da eta, gaur egun, ia 100 ikasle ditu. Bestalde, Berriozarko Udalak eta Euskarabideak eskaintzen dituzten dirulaguntzak direla eta, inoiz baino errazagoa da euskara ikastea. Udalak, aurten, 35 dirulaguntza eskaera jaso ditu euskara ikasteko. Azken hiru urtean, eskatzaileen kopurua nabarmen handitu da, 2022ra arte ez baitziren 15 baino gehiago. Orain, ikasturte honetan hasita, hastapen maila (A1) doakoa denez, Berriozarko Udalak diru gutxiago banatu du dirulaguntzetan euskara ikasteagatik, eskaera gehiago jaso baditu ere, ondoko grafikoak erakusten duen bezala.



Sube el número de personas que aprenden euskera

● El euskaltegi Auzalor de AEK de Berriozar ha experimentado un incremento de personas adultas matriculadas para aprender euskera en los últimos años, y cuenta en la actualidad con casi 100 alumnos y alumnas. Con las ayudas económicas que ofrecen el Ayuntamiento de Berriozar y Euskarabidea, aprender euskera está siendo más fácil que nunca. El Ayuntamiento ha recibido este año 35 peticiones de subvención para aprender euskera. En los últimos tres años, destaca el aumento de solicitantes, ya que hasta 2022 las solicitudes no pasaban de 15. Al ser gratuito el nivel de iniciación A1 a partir de este curso, el Ayuntamiento de Berriozar ha repartido menos cantidad de dinero en subvenciones por aprendizaje de euskera a pesar de recibir más solicitudes, como muestra el gráfico adjunto.

Aurrerapausoak, udal esparruko jazarpenari aurrea hartzeko eta lan integritatea babesteko

Berriozarko Udalak prestakuntza saioa egin zuen urtarrilaren 15ean, gai horiez arduratzen den Instrukzio Batzordeari zuzendua. Izan ere, sexu jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako batzordea da eta, era berean, lan esparruko sexu askatasunaren nahiz osotasun moralaren aurkako beste portaera batzuen kontrako batzordea. Prestakuntza, zehazki, Sortzen aholkularitza enpresak eman zuen. Saioarene bidez, protokoloa ongi aplikatzeko behar diren ezagutzak eta tresnak eman nahi izan zitzaizkien batzordeko kideei eta, horretarako, hainbat gai landu ziren; adibidez, nola jokatu, barne antolamendua, eta zer epe eta prozedura bete behar diren, jazarpen egoerak atzematen badira.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Barne Plana onetsi da

● Berriozarko Udaleko osoko bilkurak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Barne Plana onetsi zuen urtarrilaren 28an, eta 2026tik 2029ra egonen da indarrean.

Plana iazko udaberrian abiatutako prozesuaren emaitza da, udal lantaldearen egoerari buruzko diagnostikoa egin baitzen. Berdintasunean aditua den Eraberria izeneko aholkularitza enpresak laguntza teknikoa eman zuen diagnostikoa egiteko eta plana lantzeko.

Plana ezartzeko prozesuaren baitan, udal langileendako prestakuntza saio bat egin zen otsailaren 4an, planaren edukia erakusteko, genero berdintasunaren inguruan sensibilizatzeko eta hura Udalaren barne jardunean eraginkortasunez aplikatuko dela sustatzeko.

Pelbis zorua zaintzeari buruzko tailerra martxoan

● Udalak berriz ere antolatu du "Zaindu eta ezagutu zure zoru pelbikoa" tailerra eta Lidón Soriano Segarra emanen du datorren martxoaren 6an, 13an, 20an eta 27an, Iruñalde zentroan. Emailea doktorea da Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan eta, fisioterapeuta espezialista, uroginekologian, gorputz berreziketean eta neurologian. Joan den iraileko lehen edizioaren arrakasta ikusirik, Berdintasun Arloak tailerra berriz ere antolatzea erabaki du, orduko hartan tokirik gabe gelditutako emakumeek parte hartzeko aukera izan dezaten. Jardueran, beraz, zoru pelbikoa ezagutzeaz gain, huraxe nola zaindu erakutsiko da, eduki teoriko eta praktikoen bidez erakutsi ere, prebentzioa, autozaintza, gorputz kontzientzia eta bizi-kalitatearen hobekuntza ardatz harturik.

Avances en la prevención del acoso y la protección de la integridad laboral en el ámbito municipal

El Ayuntamiento de Berriozar llevó a cabo el pasado 15 de enero una sesión formativa dirigida a la Comisión Instructora del Protocolo contra el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y otras conductas contrarias a la libertad sexual y la integridad moral en el trabajo. La formación fue impartida por la Consultoría Sortzen.

El objetivo de esta sesión fue dotar a las personas integrantes de la Comisión de los conocimientos y herramientas necesarias para aplicar correctamente el protocolo, abordando aspectos como las pautas de actuación, la organización interna, los plazos y los procedimientos a seguir ante la posible detección de situaciones de acoso.

Aprobado el I Plan Interno para la Igualdad de mujeres y hombres

